

"Ricardo Baroja" Ikastetxe Publikoa
Haur eta Lehen Hezkuntza
Alzate, 8 - 31780 BERA
948 625019 Telefonoa / 948 625082 Faxe
Posta Elektronikoa: cpbera@educacion.navarra.es
Web: www.ricardobarojaeskola.net
NIF: S3199044C



KALITATEKO IKASTETXEA
CENTRO DE CALIDAD



Colegio Público "Ricardo Baroja"
Educación Infantil y Primaria
Alzate, 8 - 31780 BERA
Teléfono 948 625019 / Fax 948 625082
Correo electrónico: cpbera@educacion.navarra.es
Web: www.ricardobarojaeskola.net
NIF: S3199044C

1

GURE ESKOLAKO GURASOEI:

Lehenik eta behin AGUR BERO BAT guztiei eta, berriak zaretenei bereziki, ONGI ETORRI!

Idazki honen bidez, 2022-2023 ikasturteko antolamenduaren xehetasun batzuk azaldu nahi dizkizuegu. Aurten, 197 ikasle izango ditugu gure eskolan eta bertan lanean arituko garen irakasle taldea honako hau da:

H.H. 3 urteko gela: Ainhoa Agesta
H.H. 4 urteko gela: Arantxa Oyarzun
H.H. 5 urteko gela: Ana Hernandorena (idazkaria)
L.H. 1.go maila A: Maite Altxu
L.H. 1go maila B: Miren Irurzun
L.H. 2. maila: Dane Olasagasti
L.H. 3. maila A: Rosa Eugi
L.H. 3. maila B: Nekane Iruretagoiena
L.H. 4. maila: Arantxa Mitxelena
L.H. 5. maila A: Gorka Rodriguez
L.H. 5. maila B: Itziar Arozena
L.H. 6. maila A: Maite Blanco
L.H. 6. maila B: Joserra Lopez

L.H. 2. zikloan: Estitxu Pinatxo (ikasketa burua)
L.H. 3. zikloan: Eider Zapirain (Zuzendaria)

Ingelesa HH3, LH1, LH2, LH4: Itxaso Villanueva.
Ingelesa HH4, HH5, LH3: Xabier Urtxulutegi
Ingelesa LH 5-LH 6: Vanesa Garcia
Frantsesa: Jon Txuria
Gorputz Heziketa: Asier Lizartza
Musika: Axun Ezkurra
Erljioa: (Oraindik izendatzeke)
Orientatzaileak: Sara Largo
Pedagogia Terapeutikoa - Gela Alternatiboko tutorea : Inaxio Sansiñena
Pedagogia Terapeutikoa: Itsaso Otondo
Hizkuntza eta Entzumen irakaslea: Jaione Jimenez
Zaintzaileak: Belen Azpiroz eta Tere Aleman



"Ricardo Baroja" Ikastetxe Publikoa
Haur eta Lehen Hezkuntza
Alzate, 8 - 31780 BERA
948 625019 Telefonoa / 948 625082 Faxe
Posta Elektronikoa: cpbera@educacion.navarra.es
Web: www.ricardobarojaeskola.net
NIF: S3199044C



KALITATEZKO IKASTETXEA
CENTRO DE CALIDAD



Colegio Público "Ricardo Baroja"
Educación Infantil y Primaria
Alzate, 8 - 31780 BERA
Teléfono 948 625019 / Fax 948 625082
Correo electrónico: cpbera@educacion.navarra.es
Web: www.ricardobarojaeskola.net
NIF: S3199044C

Jakinarazi nahi dizuegu, aurten SKOLAE (hezkidetzak) programarekin jarraituko dugula. Aldi berean, LAGUNTZA (Emozio Hezkuntza) programarekin lotutako formakuntza jasotzen jarraituko dugu. Bertzalde, ikastetxeko Plan Digitala eratzeko saioretan parte hartuko dugu. Eta horretaz gain, proiektuetan oinarritutako metodologia berrien inguruko formakuntza jasotzen eta horiek martxan jartzen jarraituko dugu.

Zuzendaritza orduak: Astearteetan 11:30etatik 13:00etara.

Tutorearekin biltzeko ordua: Bakoitzak bere tutorearekin ordua zehaztuko du.

Jantoki zerbitzua: Ricardo Barojako jantoki-zerbitzua, guraso elkarteak kudeatzen du baina, Xulufraia Fundazioa da lehengaien eta zaintzaileen kudeaketaz arduratzen dena. Zaintzaileak eskolako edo Toki- Onako gurasoak izan daitezke..

Xulufraia Fundazioaren arduren artean, ahalik eta elikagai ekologiko gehien erabiltzea eta ekoizleak zonaldekoak izatea daude.

Dakizuenez, irailean eta ekainean ere zerbitzu hau eskaintzen da. Irailaren 9an hasi eta ekainaren 22a bitartera eskainiko da.

Egunero gelditu behar dutenek hilabeteko kuota ordainduko dute. Egunen batean ez badu erabili behar, goizeko 10:00ak baino lehen abisatu behar du sukaldean, edo **640818992** Whasapp zenbakira mezua bidali.

Beti bezala, egun bakanetan geratzeko aukera ere badago, aski izanen da goizean, 10:00ak baino lehen, abisatzea.

Errezibo guztiak (egun solteak ere bai) banketxetik pasatuko dira. Horretarako kontu zenbakia eskatuko zaizue.

Arduraduna: Arantxa Portu.

Guraso Elkarteak:

Guraso Elkarteak gela bakoitzeko ordezkariarekin osatzen da, eta partaideak ikasturtean zehar, beharren arabera, bilduko dira.

Lehendakaria: Teresa Igoa.

Hurtzaindegi zerbitzua:

Aurreko ikasturteetan bezala, aurten ere hurtzaindegi zerbitzua (gosaria barne) egonen da, goizeko 8:00etatik 9:00etara.

Egun solteetan gelditzeko aukera dago. Horretarako, bezperan, beranduenez, jangelan abisatzearekin nahikoa da.

Arduraduna: Leire Irurieta.

Materialaren kuota:



"Ricardo Baroja" Ikastetxe Publikoa
Haur eta Lehen Hezkuntza
Alzate, 8 - 31780 BERA
948 625019 Telefonoa / 948 625082 Faxa
Posta Elektronikoa: cpbera@educacion.navarra.es
Web: www.ricardobarojaeskola.net
NIF: S3199044C



KALITATEZKO IKASTETXEA
CENTRO DE CALIDAD



Colegio Público "Ricardo Baroja"
Educación Infantil y Primaria
Alzate, 8 - 31780 BERA
Teléfono 948 625019 / Fax 948 625082
Correo electrónico: cpbera@educacion.navarra.es
Web: www.ricardobarojaeskola.net
NIF: S3199044C

Urtero, ikasleek erabiliko duten material suntsikorra eta fotokopiak ordaindu ahal izateko diru kopuru bat eskatuko zaizue.

Ordainketa **SEPAren bidez egingen da**, SEPA baimena sinatua ez duten familiek, honako kontuan egin beharko dute ordainketa:

La Caixa: 21003693212200031720. Sarrera egitean zuen seme alaben **izena eta abizena** agertzen direla egiaztatu eta egiaztagiria tutoreari eman.

Hauk dira ordaindu beharreko kopuruak:

Eskolan seme-alaba bakarra dutenek: 50 euro

Eskolan bi seme-alaba dutenek: 70 euro

Eskolan hiru seme-alaba dutenek: 80 euro

Egutegia

Aurtengo egutegia ekainean igorri genizuen eta [eskolako web orrian](#) kontsultatzen ahal duzue.

Ordutegia:

Irailean eta ekainean:

9:00etan sartu eta 13:00etan irten.

Gainontzeko hilabeteetan:

09:00-12:50 eta 14:20-16:00 (astelehen, astearte, ortzegun eta ortziraletan)

09:00-13:00 (asteazkenetan)

Ikasturte hasierako guraso bileren egutegia:

Aurrerago jakinaraziko zaizkizue datak eta orduak.

Gogoratu zuen seme-alabentzat ezinbertzekoa dela zuen partaidetza. Guraso eta irakasleen arteko harreman zuzena eta estua hagitz onuragarria da.

Baimenak: Familia berriei posta elektronikoz galdetegi bat iritsiko zaizue zenbait baimen eskatzen.

IKEE eta Zerbitzuen Gutuna: Edozein Iradokizun, Kexa, Erreklamazio edo Esker ona izanez gero eskolako web orrian inprimakia eskura izanen duzue.

Irteerak:

Ikasturtean egiten ditugun irteeren berri, tutore edo zuzendaritzak emanen dizue.



"Ricardo Baroja" Ikastetxe Publikoa
Haur eta Lehen Hezkuntza
Alzate, 8 - 31780 BERA
948 625019 Telefonoa / 948 625082 Faxa
Posta Elektronikoa: cpbera@educacion.navarra.es
Web: www.ricardobarojaeskola.net
NIF: S3199044C



KALITATEZKO IKASTETXEA
CENTRO DE CALIDAD



Colegio Público "Ricardo Baroja"
Educación Infantil y Primaria
Alzate, 8 - 31780 BERA
Teléfono 948 625019 / Fax 948 625082
Correo electrónico: cpbera@educacion.navarra.es
Web: www.ricardobarojaeskola.net
NIF: S3199044C

Osasun neurriak:

Aurten ez da beharrezkoa izanen neurri berezirik hartzea, normaltasun osoz ariko baikara. Kontutan hartu bakarrik, garraioa erabiltzen duten 6 urtetik gorako ikasleek muxukoa jantzi beharko dutela.

AGUR BERO BAT.

Ricardo Barojako zuzendaritza.